

# Galdetzeagatik ez dadila izan.

Guk mundua eratzten dugu



PÁGINAS WEB:

[www.aulaintercultural.org](http://www.aulaintercultural.org)

[www.rayuela.org](http://www.rayuela.org)

[www.fete.ugt.org](http://www.fete.ugt.org)

[www.mtas.es/mujer](http://www.mtas.es/mujer)

Ilustrazio eta diseinua:

Mónica Carretero

[lazarzamora@wanadoo.es](mailto:lazarzamora@wanadoo.es)





Kaixo, Karima dut izena eta bederatzi urte ditut. Gaur gure irakasleak azaldu digu Emakumeen egun Internazionala ospatuko dela. Eta ONU-n, herrialde guztietako banderez apaindurik dagoen pospolo kaxa erraldoi bat dirudien eraikin hartan, bilera garrantzitsu bat ospatzen ari direla, mundu osoko neska gazte, ume eta emakumeen eskubideak errespetatzen diren ala ez aztertzeko. Irakasleak dionez, Espainiar estatuan urte asko eta asko pasa behar izan dira guztiek eskubide berdinak izateko, eta honek esan nahi du eskubide hauek betetzen diren ala ez zorrotz hartu behar dugula kontuan.



Gero oso seria jarri da, zeren egia esan iskanbila handia egiten dugu eta gaur ongi portatzen baginen Emakumeen egun Internazionala zergatik ospatzen den azalduko zigula esan dugu.

Andereñoak istorioak kontatzen dizkigunean, asko gustatzen zaigu zeren denboraren makinan bidaiatuko bagenu bezala da. Bere bizitzaz egiten dugu berba, eta garai batean benetan gertatu zitaionaz. Beti esaten ditu gure bizitzaren protagonista garela, eta nahi badugu gure mundua mutil eta neska guztientzat leku hobe bat izan daitekeela.

Eta horrela, magia izan balitza bezala, isiltasuna nagusitu da klasean...





## ZERGATIK OSPATZEN DA EMAKUMEEN EGUN INTERNAZIONALA?

Gaur oso normala iruditzen zaigu neska eta mutilek ikasi ahal izatea, pentsatzen duguna esatea, etxean lagundu, elkarrekin jolastu edo handi egiten garenean nolakoak izango garen amestu. Baina hau eta beti horrela izan. Mende askotan zehar emakumeek gauza batzuk egiten zituzten eta gizonezkoek beste batzuk.

Adibidez, orain dela urte gutxi arte, emakumeen zailtasunak zituzten Unibertsitatera joateko. Espainian lehen aldiz zailtasunak gainditu eta unibertsitatera joateko aukera izan zuen emakumeetako bat Concepción Arenal izan zen. Berak abokatu izan nahi duen baina ez zioten uzten emakumezkoa zelako.

Hau ikusirik, inolako lotsik gabe, bere ametsa bete nahian, mutilez mozorrotu zen.



Arazi asko izan zituen, baina azkenean lortu zuen. Okerrena zera izan zen, salatariren batek bere sekretua kontatu zuela, eta orduan eskandalu ederra sortu zen. Baina bere ekintza ikusirik, neska asko animatu ziren Unibertsitatean ikastera...

Gizon eta emakumezkoek eskubide berdinak izatera iristea lan handia izan zen. Gaur egun ere herrialde batzuetan, haur eta emakumezkoek zailtasun handiak dituzte ikastolara joateko, beraien lana onartua izateko, erabakiak hartzeko edo interesatzen zaien gauza haietan parte hartzeko.

Andereñoak dio martxoaren 8a oso egun berezia dela emakume guztientzako. Gure urtebetetze eguna ospatzea bezala omen da. Egund honetan, historian zehar egin dugun lana oroitzen dugu, gaur egunean zer gertatzen zaigunari buruz pentsatu eta mundua nolakoa izatea nahi dugun erabakitzen dugu.





## NOLAKOA IZAN DA EMAKUMEEN BIZITZA HISTORIAN ZEHAR?

Irakasleak, historian zehar emakumezkoek eginiko gauzak oso garrantzitsuak izan direla kontatzen digu, baina honek ez omen du esan nahi eginiko lan hauen garrantzia errekonozitua izan denik. Hau da, emakumeek lana egin badute ere, lani honi ez zaiola garrantzirik eman.

Garai batzuetan eta kultura desberdinetan, emakumezkoak oso garrantzitsuak ziren, beharrezkoak: apaizak ziren, nekazaritzara dedikatzen diren, sendabelarrekin, haziak jaso eta ederki zekiten nola hezi ereindako hazia, zeramikazko pitxarrak egiten zituzten... Gizonezkoak ehizara zihoazen bitartean, beraiek hazia ereiten zuten, sukaldean ibili, seme alabak hezi. Eta hori oso garrantzitsua zen.



Gero hiriak eraikitzen hasi ziren eta estatuak. Hasieran emakumezkoek zelaietan egiten zuten lan, errotetan, artiletik ariera aterata, baita errementari ere... Baina lan eskasia hasi zenean, debekatu egin zieten lanbide hauek ikastea, eta etxean geratu ziren lanean. Bizitzan garrantzia zuten gauzetan arduratzen baziren ere, ez ziren baloratuak eta merezi zuten garrantziarekin baloratuak.

Asko ez zeuden konforme eta zailtasunen gainetik, ezkutatu edo mozorrotu, zientzialari, politika, margolari, sendagile, erizain, idazle, asmatzaile... izatea lortu zuten. Uf! Eta gainera bizitzak bizitza izateko beharrezkoa zen dena egiten zuten. Denetarik egin zuten. Askotan bildu ziren elkarrekin protesta egin edo laguntzeko. Horrela, denen artean, bozkatzeko eskubidea lortu zuten, baita beste eskubideak ere.

Egia esan, asko zor diegu ezinezkoa zirudien hura, benetakoa bihurtu zuten emakume haiei. Eta jada inork ezin du esan zuk ezin duzula hori egin neska gaztea zarelako!





## EZAGUTZEN AL DUGU EMAKUMEEK EGIN DUTELA HISTORIAN ZEHAR?

Andereñoak izugarri daki. Batzuetan dakien guztia non gordetzen duen galdetzen diot neure buruari. Nik uste Alexandriako Hipatia bezain azkarra dela, greziar garaiko jainkosa jakintsu bat; emakumezko garai hartan publikoan pentsatu, irakatsi eta ikasteko oztopoak jartzen bazieten ere. Berak hainbeste ikasi zuen, azkenerako jakintsu eta famatu izatera iritsi zela. Mundu guztiak irakurtzen zituen aritmetika, astronomia eta filosofia, idatziriko liburua, urtean askotan zehar Alexandriako liburutegian gorde izan diren liburua.

Emakumeek beraien jakintasuna beti konpartitu eta bere inguruko pertsonak zaintzeko erabili dutela kontatu digu andereñok.



Adibidez, Salernoko Trotulak medikuntzari buruzko idatzi oso garrantzitsu bat burutu zuen XI. mendean.

Ada Byroni buruz ere hitz egin digu. Ingalaterran jaio zen 1815. urtean. Ba al dakizue zer gin zuen? Gerora begira, ordenagailuetako lehen programa egiteko behar zena asmatu zuen! Marie Curiek Nobel sari irabazi zituen, fisika eta kimikakoa.

Mary Wollstonecraft-ek, Frantziako Iraultza gori-gori zegoenean, oso liburu garrantzitsu bat idatzi zuen "Emakumearen eskubideen defentsa" izenekoa alegia. Mary Shelley izeneko alaba izan zuen, "Frankenstein"-en idazlea izan zena.



Gaur egun, Fiji inletan, Wainimate Elkarteko emakumeek, beraien amonen jakintza erabiltzen dute sendabelarrekin natura babesteko. Mila urtetan zehar emakumeek osasunari buruz jasotako jakintza da hau.

Eta horrela joan zaigu, gure historiaren parte diren emakumezko askoren bizitza kontatzen.



## NESKA ETA MUTILEK KIROL BERTINAK PRAKTIKA DITZAKEGU?

Asko gustatzen zait kirola praktikatzea lagunekin. Batez ere jolastean emozionatu egiten naiz, eta barre egiten dut, eta orduan gorputz osoa pozez betetzen dela dirudi.

Kirolak zer ikusia du ibili, korri, igeri, salto... egitearekin baita sokasaltoan ibili, pilotara jolastu edo gomarekin dibertitzearekin ere. Kirola egiteak gustura egotera laguntzen gaitu, gure gorputzeko zatiak nola funtzionatzen duten jakitera, iaioago sentitzera, estiratzerara... laguntzen gaitu. Baina batez ere, gure azalarekin ongi sentiarazten gaitu.



Neska eta mutilek kirol guztiak praktika ditzakegu. Pilotara jolastu, ezkutaketara... jolas dezakegu, denok batera. Elkarrekin ekintza ikaragarriak lor ditzakegu, Ellen Macarthur-ek egin duen bezalaxe. Munduari buelta eman dion lehenengo pertsona azkarrena baita. Hirurogeita bat egun egon zen bakar-bakarrik bere belaontzian!

Jolastu nahi dugun horretara jolastea eta borrokarik, haserrenik... gabe egitea da garrantzitsuena. Zeren kirolean disfrutatzen ez dugun soilik galtzen baitugu.





## ZER EGIN DUTE ETA ZER EGITEN DUTE EMAKUMEZKOEK BAKEARENGATIK?

Gaur andereñoak Nobel saria jaso duten lau emakume ausartei buruz hitz egin ditu:

Rigoberta Menchú guatemaltarra; Aung San Suu Kyi birmaniarra, Shirin Evadí irandarra eta Wangari Maathai afrikarra.

Beraien antzera, milaka emakume ari da mundu osoan zehar, bakearen aldeko indarkeriarik gabeko borrokan lanean, hala nola, "Las Madres de la Plaza de Mayo" edo "las Mujeres de Negro"...



Beraiek beti eskaintzen diete irribarre eta esku zabal bat beraien manifestazioetan parte hartu nahi duten pertsona orori.

Guk ere lagun dezakegu bakea eraikitzen, bai kalean, bai etxean, bai auzoan... edonon. Horrela lortuko baitugu indarkeria edozein zirrikitutik desagertzea.





## NOLA SALBA DEZAKEGU NATURA?

Munduko toki askotan elkartu dira emakumeak lurra zaindu eta denok bizi garen planeta hau babesteko.

Adibidez Indian, Himalayako mendien magalean, Chipko emakumeek zuhaitzak besarkatu zituzten, moztuak izan zitezten ekiditeko. Beraiei ezker, Indiako Gobernuak zuhaitzen mozketa etetea erabaki zuen, horrela natura babestuz.

Vandana Shiva fisikari indiarrek erakutsi digu basoak babestuz, lurra, ura, airea eta haziak zaintzen ditugula.



Nik uste gauza asko egin ditzakegula ingurugiroa zaintzeko, urarekin kontuz ibili adibidez, edo birziklapena, urak loreztatzea... Gure eskuetan dago planeta zahar honen bizitza!





## MUTIL ETA NESKEK ASMA AL DITZAKEGU GURE JANZTEKO ERAK?

Gure gorputzak forma eta kolore askotakoak dira. Arropak ere badira kolore eta forma askotakoak. Herrialde batzuetan polita dirudiena beste batzuetan itsusia da. Badira tokiak pertsona bat hiltzean dolua agertzeko zuriz janzen direnak, gu beltzez janzen garen bitartean.



Leku bakoitzean lege edo arau batzuk daude, nola jantzi edo nolako izan behar zaren azaltzen dutenak. Hau oso desatsegina izaten da. Denok gara desberdin. Oso aspergarria litzateke pertsona guztiak berdinak bagina. Horregatik, neska eta mutilok gure gorputzarekin gustura gaudenean eta desberdin jantzi edo moda alde batera uztean ez dela ezer pasatzen ikustean, askeagoak gara nola jantzi edo izan nahi dugun asmatzeko.





## NOLA HARTZEN DUGU PARTE HAURROK?

Klasean haur desberdinak daude. Altuagoak edo baxuagoak, potoloago edo argalagoak, kolore batekoak edo besteak, ile liso edo kizkurduna... Denok gara desberdin. Baina garrantzitsua da elkar entzutea eta iritzi guztiak kontuan hartzea, gehienbat erabakiak hartu behar diren orduan. Horrela ideia gehiago sortuko zaizkigu eta dibertigarriagoak.



Andereñoak esan digu, gu biltzen garen moduan, Pekinen 1995.urtean mundu guztiko 5000 emakume baino gehiago bildu zirela erabakiak hartzeko.

Klasean ere biltzen gara. Lehen ordezkari bat zegoen, baina orain guk aukeratzen dugu ordezkaria. Lehen ez zeuden emakumezkoak gobernuan eta orain badira.

Imajinatzen al duzu klasean erabakitzeako eskubidea mutilek soilik izatea? Edo gure ordezkari den Norak bere gelakideek diotena ez entzutea? Edo berak nahi duena egitea?

Ordezkari aukeratu badute beste gelakide guztiei asanbladetan entzuteko da, arazoak elkarrizketarekin konpontzeko, eta ez indarkeriarekin, gelakideek dituzten beharrak azaleratzeko eta proposaturikoari konponbide on bat lortzeko.





## ZERGATIK DA BEHARREZKOA MUTIL ETA NESKEK ETXEKO BETEBEHARRA ETA LANAK KONPARTITZEA?

Emakumezkoek beti egin izan dute lan inguruko pertsonak zainduz, eta bizi diren tokiak garbi, polit eta txukun mantenduz. Adibidez, Daniren birramonak, Anak, zera kontatu zion, bera gaztea zenean egunero joan behar izaten zuela ibaira etxerako ur bila, etxean ez baitzegoen iturririk ezta garbitzeko komunik ere. Orain Anak eta bere auzokideek, beraien garaiko istoriotxoak kontatzen dituzte pertsona helduentzako zentroan. Han ikasi egiten dute, beraien garaian ezin izan baitzuten egin.



Ni bizi naizen tokian jada ez du inork ibaian garbitzen. Etxean garbigailua dugu eta ama eta aita dira egunero garbigailua jarri eta arropa garbia zintzilikatu eta jasotzeaz arduratzen direnak.

Denok dugu etxea ikastola zaintzearen beharra, baita etxeko beharretan parte hartzea ere, lasaitasunean eta gustura bizi ahal izateko.





## NOLAKOAK DIRA NESKAK? ETA NOLAKOAK MUTILAK?

Jaiotzerakoan eta gure burutxoia mundura azalerazean, gauza txiki eta handiak ikasten hasten gara. Txikia nintzenetik pertsona heldua nolakoak diren aztertu izan dut. Gustuko dut ze arropa aukeratzen duten, eta nola janzten dugun neskok, zer egiten duten eta zer esaten duten jakitea.



Neskak eta mutilak desberdin gara, baina ikaragarria da! Zeren neska eta mutilak nahi duguna izan gitezke. Andereñoak dio ezin dugula ahaztu bai neskak eta mutilak eskuin berdinak ditugula. Nahi dugun jolasetara jolastu dezakegu, nahi dugun bezala jantzi pozik sentiarazten gaituen erara, lagun eduki, amestu, ikasi...

Jokoak truka ditzakegu, konpartitu edo denon artean berriak sortu ere. Proba ezazu eta ikusiko duzu nola gustatuko zaizun beste gauza batzuk egitea!





## NOLA ERLAZIONATZEN GARA NESKAK ETA MUTILAK?

Neskak eta mutilak oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, ikasi eta jolas egiten dugu. Baina gaur andereñoek telebistan emakumeak jasaten dituzten tratatu txarrei buruz hitz egiten duten berriak zergatik agertzen diren azaldu digu. Berak dio denon artean lortu dezakegula hori ez gehiago ez gertatzea eta konponbide bezala, garrantzitsua dela errespetuz eta maitasunez tratatzea, zeren modu honekin bakarrik lortuko dugu gustura sentitzea eta besteei ere sentiaraztea. Beharrezkoa da nahi dugun horri BAI esaten jakitea, eta EZ gaizki sentiarazten gaituenari.

Arazoak ditugunean edo buru gogor jartzean, hitz eginez eta pasatzen zaiguna azalduz saiatu behar gara arazoa konpontzen. Honen bitartez laguntasuna mantentzen eta bakea egiten ikasten dugu.



Bestalde esan digu ere normala dela noizbehinka bakarrik egoteko beharra izatea, inork molestatu gabe. Orduan gure espazio propioa bilatu dezakegu. Hau dena oso ondo azaltze omen du Virginia Woolf-ek 1929an idatziriko “Un cuarto propio” nobelan.

Ni nire gelan nagoenean, batzutan atea ixten dut lasai egoteko, bakarrik nire gauzekin. Horrela gustura sentitzen bainaiz. Niretzako oso garrantzitsua da libre izatea, egin nahi dudana momentu bakoitzean erabakitzea, norekin, non eta nola. Modu honetan neska eta mutilak, emakume eta gizonak, errespetuz eta maitasunez bizi gaitzke.



# Jolastera

HAURREK MUNDUTIK  
BIDAIATZEN DUGU





## HAURREK MUNDUTIK BIDAIATZEN DUGU

Tableroa tamaina handiagoa egin daiteke klasean jolastu ahal izateko. Dadoa eta fitxak behar dira, taldeen kopuruak erabakiko du fitxen kolore kopurua. Taldeak 4/6-koak izango dira.

Irteerako kasilla martxoaren 8a da. **Emakumearen egun Internazionala**. Dado batekin, talde bakoitzak txandaka botako du. Kasillak koloreen bidez desberdintzen dira eta erreferentzia egite diote koadernoan trataturiko apartatuei. Bakoitzean taldeak gaindu behar duen proba azaltzen da, eta kasilla handietan, hitz egin beharreko gaia. (adibidez: bizitza besarkatzen duten emakumeei buruz esandako zerbait gogora ekarri, eta gaur egun inguratzen gaituen inguruak). Batzuetan proposamena klase guztiari zabaltzeko aukera dago..

1895.  
Bizikletan  
munduari buelta  
ematen dion lehen  
emakumezkoa

Historiatik  
bakera eta  
nire txanda  
baita nire  
aukera!

Amonari  
galdetu

Martxoak8  
Emakumeen  
egun  
Internazionala

### IRTEERA



Zubia

Leguntzesun  
en borobila

Maiatzaren  
24a. Bakearen  
aldeko  
Emakumeen egun  
Internazionala

Rolen  
aldaketa.

Baketik  
muxura, eta  
nire txanda  
dau hurrengo  
muxural!

Maiatzaren  
28a Emakumeen  
Osasunaren  
egun  
Internazionala

Jantzi  
aldaketa

Jantzi  
diseinua

Ekainaren  
5a  
Ingurugiroaren  
egun  
Internazionala



Hazitegia

Bizirikidepena

1995ko  
Irailaren 14a  
Emakumeen  
Konferentzia  
Mundiala

Zure  
klasara  
dekoratu

Korapila  
oskatu

Urteko egun  
guztiak3

Lanek eta  
belarnek  
identifikatu

...Beharrik  
hazitegia eta  
nire txanda eta  
ez geratu begira

Emakumezkoa  
Indarkeriaren  
Kontrako  
egun  
Internazionala

Hau muxu  
bat al dez  
Muxu bat?

...Indarkeriatik  
txanda  
jokatzeari

1870ko  
abuztuaren  
31a. Maria  
Montessori  
jaiotzen da

Jolasak

Dantzak -  
Abestiak



### BUKAERA



# PROBEN GARAPENA

## IRTEERA: MARTXOAK 8. EMAKUMEEN EGUN INTERNAZIONALA

1. Galdetu zure amona edo amari nola bizi ziren txikiak zirenean, bere istorioak, laguntza moduan erabili argazkiak. Gero konta ezazu kontatutako klasean.
2. Bakearen kasilla handira eramaten zaituen errima.

## 1895 BIZIKLETAZ LEHEN ALDIZ MUNDUARI BUELTA EMATEN DION LEHEN EMAKUMEZKOAK.

### 1. ZUBI KOOPERATIBOA

Guztiok zutik, sorbaldak kontaktuan daudela bikoteetan, eta lurreko marra imajinario baten gainean. Ilaran lehengo dagoenak azkenekoaren tokira iritsi behar du, lurra ukitu gabe, besteen laguntzaz, oinetan ezarriz eta besteak heltzen duten bitartean. Horrela ilara osoa pasa arte.

### 2. LAGUNARTEAREN BORIBILLA

Borobilean eta zutik, borobil barruan neska edo mutil bat barruan kokatzen da begi tapatu eta hankak elkaturik dituela. Orduan erortzen uzten da borobileko alde batera, eta hauek suabe-suabe beste alderen batera botatzen dute. Errepublikatu egin daiteke, haur guztiek proba dezaten.

## MAIATZAREN 24A EMAKUMEAREN EGUN INTERNAZIONALA BAKEAREN ALDE.

1. Jolasa: **ALDATU ROLEZ**. Klasean sortzen diren arazoetan parte hartzen duten pertsonaien paperen aldaketa: nor da haserretzen dena? Nork egiten du oihu? Nork ezartzen du bakea?... Lagun dezagun klaseko arazoak errazago argitzen.
2. Muxuaren kasillara eramango zaituen errima.

## MAIATZAREN 28<sup>o</sup>. EMAKUMEAREN OSASUNAREN EGUN INTERNAZIONALA

1. Jantzien aldaketa zure bikotearekin. Mozorrotu zaitetz minutu batean aurkitzen duzunarekin.
2. Zure jantzi propioak diseinatzeko tailerra: paper, marrazki, klaseko material edo jantzi propioekin egin daiteke.

## EKAINAREN 5A INGURUGIROAREN EGUN INTERNAZIONALA. EMAKUMEEK BIZITZA BESARKATZEN DUTE.

1. Hazilari komunitarioa klasearentzat: talde guztien artean: lorontzia dekoratu, babarrunak erein, ureztatu, zaindu, txandaka banatu...
2. **Birziklapena**: Kontenedore eta kajoiak dekoratu ontzik klaseetan bereizteko, eta ekartzen doazen materialarekin, imajinarioari bide eman eta tailer bat egin beraien burutazioen arabera.

1995EKO IRAILAREN 14A IV. EMAKUMEEN KONFERENTZIA MUNDIALA.  
PEKÍN

1. **Jolasa:** Gelako dekorazioa aldatu taldean nola egin erabaki ondoren, eta nola geratzea nahi den erabaki ondoren.

2. **Askatu korapiloa:** Haur guztiek, begi tapatuekin, besoak altxa behar dituzte, bata itxirik eta bestea zabalik. Horrela daudela, esku irekia beste esku itxi batekin elkartu beharko dute. Behin hau eginik, begiak ireki eta ados jarri beharko dute Portu den korapiloa askatzeko.

URTE GUZTI EGUN GUZTI GUZTIAK  
NESKA ETA MUTILEK DENETARIK EGITEN DUTE.

1. **Klaseko garbiketa eta zainketa:** beharrezko diren ekintzak identifikatu eta denen artean banatu klasea egokiturik egon dadin.

2. Hazilariaren kasillara eramango zaitu errimak

AZAROAREN 25A EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA.

1. **Jolasa:** "Hau muxu bat da, zer? Muxu bat "; borobilean eta zutik, pertsona batek bere eskuinekoari muxu bat eman eta esaten dio: hau muxu bat da. Eta bestea galdetzen du: zer da? Eta besteak berriro muxu eman eta erantzun: muxu bat. Horrela eskuinerantz. Hasi den pertsona berak ezkerrekoari besarkada bat ematen dio, esanez: hau besarkada bat da. Eta besarkada eman dionak: zer da? Eta besteak besarkada eman eta erantzun: besarkada bat. Eta horrela ezkererantz jarraitu.

2. Jolasaren kasillara eramango zaitu errimak.

1870EKOABUZTUAREN 31A . MARÍA MONTESSORI JAIOTZEN DA.  
HAURREI DESBERDIN IRAKASTEKO ERAK DAUDE.

1. **Jolasa:** Neska eta mutilentzako tipikoak zaizkien jolas eta ekintzetarako beraren abildadea eta iaotasuna agerian jarri. Adibidez: gomara jolastu, botoi bat josi, pilota bota belkrozko dianara...

2. **Dantza-abestia:** Dantzatu egiten dugu denok eta denen artean jolas, barre egin eta oso ongi pasa dezakegula demostratu.

